

# RESEÑAS Y COMENTARIOS

## AIPAMEN ETA IRAZKINAK

**DUTRENIT, JEAN-MARC:** "La rentabilite du social - Quelques experiences françaises". En: Revue Française des Affaires Sociales, n.º 2 Abril-Junio 89, pags. 85-102.

### GIZARTEKOAREN MOZKINGARRITASUNA

Gizartekoaren mozkingarritasuna zailtsua eta korapilatsua den arazoa dugu, zeinaren soluziobidea sinpleagoko arazoetan zatikatzetik erakartzen diren puntu batzuren azterketan datzan.

Lehenbizi, gizartekoa historian zehar saiatuko gara aztertzen, bere mozkingarritasunaren neurria jarraipen historiko baten eta gaurkotasunaren barnean kokatu ahal izateko; neurtu nahi honi atxikirik aspaldiko eztabaida azaltzen zaigu, gizartekoaren eragina zein ote denarena hain zuzen ere. Gero, ikertze-taldeak eratu dituen neurri-teknikak eta esperientzietan oinarrituriko emaitzak aztertuko ditugu.

Pentsa dezakegu gizartekoa esku zabaltasun kontua dela eta ez mozkingarritasunarena, baina ezinbestekoa dugu neurrien doitasuna, esku zabaltasuna bere osotasunean aritzea nahi badugu. Orduan suertatzen da gertagarri eta ez beste modu batez, egiteko modu desberdinen kostuen artean aukeratu eta erabakitzea. Modu hauek helburu desberdinetara garamatza, kolektibitateak gradu ezberdinetan desiratuak direlarik.

Esan beharrekoa da laguntza emanezko fenomenoak betidanik izan direla, animalien elkarteetan artean azalduz ere. Gizonezkoak beti kontsideratu du gizartekoa "emaile" moduan eta honi buruz teoria ezberdinak eman dira historian zehar. Hor daude KEYNESen teoria, irakaspide katolikoa, protestantea, Erromako garaiko gari—legeak, lege hebraikoak etabar, gure baieztapena frogatzen dutenak. Elkar bilduaz teoria hauek bi iritzi edo jarrera sortarazten dituzte.

Lehenengoan, gizartekoaren zereginak pakeari ekin eta irabazien bidezko banaketara murriztu behar du, hau da, ongile, onuratsu suertatu behar zaio gizabanakoari ezerrezen truke. Bigarrenak, laguntza eta gizarte-lanak, irabaziak metatzearen arauera eman behar direla azaltzen digu, metatze horretan gizabanako guztiek parte hartu beharra daukatelarik.

Zerbitzu guztiak zerbaiten truke emango dira, handiagoa izaten saiatuz. Horrela, mozkingarri bihurtzen da gizartekoa zeren gizabanakoaren aportazioek gizartearen bilakaeran laguntzen duten.

### GIZARTEKOAREN TEORIA ETA EBALUAKETA-TEKNIKAK

Aipatutako bi jarrera edo teorien aldeko argudioak eta elkarren ihardespeneak egin dira bakoitzaren balioarritasuna defendatuz. Bataren aldekoa ala bestearena azaldu gabe,

gure asmoa gizarte-laneko modu gehienei eusten zaien funtsezko abiaburuak azaltzea izango da. Izan ere, gizartekoaren mozkingarritasunaren ideiak gizarte-laneko funtsezko osagaiak definitarazten dizkigu.

Neurriaren aplikapenak badu bestalde beste abantaila ere, zeren permetitzen baitigu bezero eta gizarte-ekintza bakoitzaren aurrean Historiak utzi dizkigun gizarte-lanari buruzko aburuen ezarketaren errealitatea somatzea.

Gizartekoari buruzko antzinako aurkakotasun hau guztietan ematen da, eta zerbitzu bakoitzean KOUZESek eta MIKOk deituriko diskordantziak, disjuntzioak eta tira-birei eranstean zaie. Izan ere, 1. irudian edozein giza-zerbitzu hiru partaideren aurrean aurkitzen dela ikusten dugu, aukeratuak, taldeak eta oinarriko "experto"ak. Bakoitzak bere abiaburuak, neurriak, egiturak eta egiteko modu desberdinak garatzen ditu. Gainera, kontribuzioek eta retribuzioek, gizarteko bururakizun arketipalak hain zuzen, egile-talde bakoitzean birmozten dituzte aurkakotasun hauek.

Beraz, bi dimentsio hauen neurriaren bidez, hiru partaideren arteko adostasuna, gizarte-ekintza dela medio, lortzeko gertagarri izango da.

Orain bada, irabazdun bakoitzaren kontribuzioen garapena eta/ala retribuzioen garapena, bakarra den fenomeno baten bi dimentsio dira, halako moldez non beraien neurriak hiru partaideei bat etortzea permetituko dien.


Agerikoa da bestalde, neurri-teknika hauek bilakatzerakoan, bi dimentsio honetan oinarrituriko gizarte-lan eta egiteko modu desberdinen gauzatze ezberdinak ari garela ikertzen.

Laburbildurik, laguntza emanezkoaren funtsa, mamia, kontribuzio/retribuzio-gehigarrien eransketan edota horien kenketan datza, lagunduaren gizarte-xede zehatz bati dagokiolarik.

Formulapen moduan agertuz:



laguntza=.....

- Non: K= Gizabanakoaren laguntzagabeko kontribuzioak.  
 R= Gizabanakoaren laguntzagabeko retribuzioak.  
 \*K= Laguntzak eskaturiko kontribuzioak.  
 \*R= Laguntzak areagoturiko retribuzioak diren.



Formalizapen honen bidez, laguntza emanezko lau motarik nagusienak irudikatzea lortuko dugu.

1. Kontribuzio-gehigarria eskatu eta retribuzioak erantsi.
2. Kontribuzio-gehigarria eskatu, baina retribuzioen kopurua gutxituz.
3. Kontribuzioen mailaren jetsiera, retribuzioak handituz.
4. Kontribuzio eta retribuzioen mailak gutxitu egiten dirá.

Irudia 2	
<b>Laguntza emanezkoari buruzko hipotesiak</b>	
GIZARTE EKINTZA TALDE ETA GIZABANAKOEN XEDEAREN GAINEAN EZARTZEN DA	
Talde baten edota gizabanako baten gizarte-xedea	Gizartearekiko kontribuzioen multzoa
Kontrib. + Eskakizuna	Ordaintasun baikorra.
Retrib. + Laguntza	gizarte garapena
Kontrib. + Eskakizuna	Desoreka babestua.
Retrib. + Laguntza	epeango krisialdi ekonomikoa
—	$\frac{K_f}{\text{egoera irduitzalea}}$ Retrib. + Laguntza
Kontrib. + Eskakizuna	Ordaintasun ezezkorra.
Retrib. + Laguntza	beheramendua
 <p>Egiteko lau nagusiak</p>	 <p>Lau eragin-mota modu nagusiak</p>


Kontribuzioen gehigarriak, geure gizarteetan, bai taldearen bai gizabanakoaren etaguera-ikasketekiko menpekotasunean datza, ezaguera-ikasketa hauek edozein motatakoak direlarik.

Retribuzioen gehigarria aldiz, lagunduaren balio-sistema kontutan hartzerakoan alir-kituko dugu: hau da, gizarte-langileek antolatutako bezeroa eta bere ingurunearen arteko erlazio-bitartekotza honetan.

Talde anitzari dagokiola laguntza emanezko bakoitzak eragina du talde horren gainean, zeren taldeko gizabanako bakoitzarenganako eragina gertatzen den. Begibistakoa da dena den, deskribatutako lau kasu hauen artean noski, bitarteko kasu asko gerta daitezkeela.

1. Kasu honetan gizabanakoek lan gehiago egiten dute, eta/ala kualifikatuagoak dira eta/ala gizarte-bizimoduari dagokiola, beraien egoera hobetu dute.
2. Kasu honetan, gizabanakoek gehiago ematen dute, gutxiago jasoz. Mozkingarria antzematen du egiteko modu honek, baina epean, laguntza emanezkoak ez du bezeroen gaitasunen bilakaera eskurarazten.
3. Hemen irudikatzen den egiteko modua krisialdi ekonomikoaren sortzaile agertzen zaigu. Gizarte-ekintzaren kostuak produkzioarenak baino handiagoak dira, eta hau epean eutsi ezina zaio.
4. Kasu honetan talde anitz baten kontribuzio-retribuzioak gutxitu egiten dira, eta honen ondoriozko egoeran ordaintasun ezezkorra ematen da: zenbat eta gutxiago jaso, orduan eta gutxiago ematen den.

Gai hauen azterketa ikuspegi experimental batetik egin dugu, eta batez ere ebaluazio-hirukote bat axean ezarri dugu, eraginak, egiteko moduak eta kostu/abantailak neurtzen dituelarik.



Ebaluaketa mota hau, ankamotz geratzen da batzuren ustez, zeren matematikoki definitu ezinak gertatzen baitira gizabiziaren gogoko hedadura bezalako balore batzuek.

Hau egia izanik ere, ez dio oztoporik egiten, zeren ez ahalik eta neurri sofistikatuena ere ezin baitu gizabanakoen hautaketa-gaitasuna ordezkatu. Izan ere, teoriak aukeratu eta eraiki egiten ditu; neurriak aldiz ontzat hartu ala indargabetu egiten du, baina ezinezkoa zaio teoriaren ordezko izan.

Laburpen gisa, honakoa esan dezakegu gizartekoaren mozkingarritasunari buruz:

- Gizakiak ez dira makinak. Hobe konpontzea, bota ala zokoratzea baino. Konpontzea mozkingarritasuna gertatzen da. Mozkingarritasun hau, irabazdunaren kontribuzio-/retribuzio handienak garatzen dituzten egiteko modu batzuren bidez lortzen da.
- Ebaluaketa-lanabesak informatizaturik daude onez gero, gizarte-zerbitzuek beraien eskuko edukiz.
- Lanabes hauek gizarte-ekintzaren tradizioan zehar oso erroturik dauden oldozkun batzuren garapena: bezeroak irabazle suertatu behar du, baita gizarteak ere gizarte-langilea kontutan hartuz.
- Baldintza hauek ezarri gero, giza-zintzien asmo razionalistak, gizarte-laneko antisia etikoak eta arduradun politikoaren zuzentasun-gogoek, amankomuneko abiapuntua eskuratzen dute, aplikatutako humanismo baten barne kokaturik.

**Isabel Arrigainek**  
Buruturiko itzulpen-moldapena

**MINISTÈRE DES AFFAIRES SOCIALES ET DE LA SOLIDARITÉ NATIONALE:** Secrétariat d'Etat Chargé de la Santé. "L'accueil de l'enfant né avec un handicap. Le rôle des maternités". Paris, Direction des Journaux Officiels, 1985, 16 págs.

ACOGIDA DE UN RECIÉN NACIDO CON DEFICIENCIA.  
LA FUNCIÓN DE LAS MATERNIDADES

Felicitar a unos padres por el nacimiento de su hijo sano y de acuerdo con el ideal soñado por ellos es algo para lo que todos los que rodean el acontecimiento del parto están preparados como nos lo muestra la experiencia diaria.